



2024KO URRIAREN 17KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urriaren hamazazpian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Maialen Amundarain Irizar, Egoitz Bergara Azpirotz, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Aitziber Azurmendi Imaz zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ordenantza fiskaletan, orokorrean, abuztutik abuztura urte arteko kontsumo prezioen indizearen (KPI) pareko igoera aplikatzea proposatu du Ogasun batzordeak, hau da, %2,6koa.

Hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren tasari dagokionez berriz, honi %10eko igoera aplikatzea proposatzen da.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiaren bazkidetza, bono eta eguneko sarrerren tasei dagokienean, hauek % 20 igotzea da proposamena.

Bestalde, honako aldaketak ere proposatu ditu Ogasun batzordeak:

1- Hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuen tasak:

Kuota seihilekoa izatetik, lauhilekoa izatera aldatzea.

- Lehen Sektorea, Merkataritza eta Zerbitzuen alorreko hondakinei dagokionez, honako tasa hau ezabatzea proposatzen da:
- Supermerkatuak, era guztietakoak (100m2tik gora)

Eta ondorengo bi tasa hauek sortzea:




- Supermerkatuak, era guztietakoak (100-400m² bitartekoak) 263,39 €
- Supermerkatuak, era guztietakoak (400m²tik gorakoak) 1.967,67 €

Ondorengo kontzeptu berri hau sortzea ere proposatzen da:

- Laguntza eta gizarte-zerbitzuetako egoitzak 4.000 €
- Industrietako hondakinei dagokienean, honako tasa hauek ezabatzea proposatzen da:
 - 5 langiletik behera dituzten industriak
 - 5-20 bitarteko langileak dituzten industriak
 - 20-40 bitarteko langileak dituzten industriak
 - 40 langiletik gora dituzten industriak, langile bakoitzeko (gehienez 1.075 euro)
 - Zerbitzu berezia eskatzen duten enpresak
 - Jarduera nagusienekoa ez diren gainontzeko lokalak

Ondorengo tasa berriak sortzea proposatzen da azken hauen ordeztzeko:

- 360 litroko errefusa edukiontzi bakoitzeko 271,67 €
- 1000 litroko errefusa edukiontzi bakoitzeko 406,67 €
- Errefusa edukiontzirik ez duten industriak 146,18 €
- Hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzurako aplikazio arauari dagokienez, honako aldaketa hauek egitea:

"1.- Ezarpen aldia urte naturala izango da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31a artekoa, eta ezarraldiaren lehen egunean dagoen egoera hartuko da kontutan kobraketarako. Kuota urtekoa izango da, ondorengo salbuespenekin:" ezartzen duen lekuan, ondorengo hau ezartzea:

"1.- Ezarpen aldia urte naturala izango da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31a artekoa, eta ezarraldiaren lehen egunean dagoen egoera hartuko da kontutan kobraketarako. Kuota lauhilekoa izango da, ondorengo salbuespenekin:"

Honez gain, ondorengo araua ezabatzea:

"3. Jarduera bat lokal bat baina gehiagotan burutzen bada, jarduera nagusia duen lokalean aplikatuko da langile kopuru osoa, eta gainontzeko lokaletan horretarako espreski ezarritako tarifa aplikatuko da. Lokalaren kontsiderazioa Hirilurreko Katastroko zenbaki fijoaren arabera egingo da."

2- Hileta zerbitzuen tasak:

Honako tasa berriak gehitzea:





- Nitxoen tapetako plakan hainbat lan:
 - o Loreontziak:
 - 3462 Erref. 49,66 €
- Lurrean exhumazioa + berrinhumazioa 397,69 €
- Panteoian exhumazioa + berrinhumazioa 397,69 €
- Nitxo pribatuetan exhumazioa + berrinhumazioa 305,06 €
- Nitxo publikoetan exhumazioa + berrinhumazioa 485,88 €
- Lurrean exhumazioa + berrinhumazioa errauts nitxo publikoan 426,92 €
- Panteoian exhumazioa + berrinhumazioa errauts nitxo publikoan 426,92 €
- Nitxo pribatuetan exhumazioa + berrinhumazioa errauts nitxo publikoan 334,30 €
- Nitxo publikoetan exhumazioa + berrinhumazioa errauts nitxo publikoan 515,12 €

3- *Ur horniduraren tasak:*

- Tarifa aldakorra:

Nekazal ustiapenei dagokien tarifa, etxebizitzetara aplikatzen zaien tarifaren % 80koa izatea.

- Tarifa finkoa:

Nekazal ustiapenei dagokien tarifa, etxebizitzetara aplikatzen zaien tarifa bera izatea.

4- *Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko tasak:*


- Alokaketak:

Tenis pistari dagozkion tasak ezabatzea.


- Udako ikastaroak:

Honako tasa hauek gehitu dira:

- Irriestaketa
 - o 4 aste 50 €
 - o 2 aste 35 €
- Gimnasia erritmika



- 4 aste 50 €
 - 2 aste 35 €
- Kirol dantza
 - 4 aste 50 €
 - 2 aste 35 €
- Tenisa
 - 4 aste 50 €
 - 2 aste 35 €
- Esku pelota
 - 4 aste 30 €
 - 2 aste 21 €
- Mendiko bizikleta
 - 4 aste 35 €
- Piraguismoa
 - 4 aste 46,80 €
- Kirolanitzeko jarduera
 - 4 aste 150 €
 - 3 aste 120 €
 - 2 aste 105 €
 - Aste 1 60 €
- Futbol jarduera
 - 2 aste 59,40 €
 - Aste 1 34,90 €
- Kirol dantza gazte
 - 4 aste 31,70 €
 - 2 aste 22,20 €
- Ziklo indoor gazte
 - 4 aste 31,70 €
 - 2 aste 22,20 €
- Bodytraining gazte
 - 4 aste 31,70 €
 - 2 aste 22,20 €



5- Kultura arloko ikastaroen tasak:

- Robotikako ikastaroari %18,03ko igoera aplikatzea proposatzen da, hileko 40 €-koa izanik.



- Talla ikastaro berri bat sortu da, eta urtean 50 €-ko tasa izango du.

6 - Udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduer a administratiboak egiteagatik prezio publikoak:

Honako prezio publikoak gehitzea proposatzen da:

- Gomazko erraldoiak: 16,53 € + BEZ
- Udako igerilekuko tabernako prezioak:
 - Izozkiak
 - Poloak 2,14 +BEZ
 - Sandwich txikia 2,14 +BEZ
 - Sandwich handia 2,82 +BEZ
 - Konoa 2,64 +BEZ
 - Kono berezia 2,82 +BEZ
 - Bestelakoak 2,73 +BEZ
 - Pintxoak
 - Tortila 2,27 +BEZ
 - Besteak 2,50 +BEZ
 - Osagarri bakoitzeko 0,45 +BEZ
 - Haragi osagarri bakoitzeko 1,36 +BEZ
 - Ogitartekoak
 - Tortila 4,55 +BEZ
 - Besteak 5,00 +BEZ
 - Osagarri bakoitzeko 0,45 +BEZ
 - Haragi osagarri bakoitzeko 1,36 +BEZ

Udal zerga eta tasen gainean udalaren dirulaguntzak eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren tasak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) eguneratuko dira, egituran aldaketarik izan gabe.

Ormazabal zinegotziak dio EAJk aurkeztutako proposamenaren bi puntutan jarri nahi dutela arreta: bateko etxebizitzaren hobari/errekarguetan eta bestetik kiroldagiko igoeran hain zuzen ere.

Etxebizitzaren gaiari dagokionez, EH Bilduren ustetan hau da Lazkaon bizi duten arazo haundienetako bat, herriar eta gazteek pairatzen duten arazo nagusienetako bat eta bereziki etxebizitza eskaintzaren falta dela arazoa, eta bereziki alokairuko etxebizitzaren faltarena. Horregatik ekarri zutela martxoko Osoko Bilkurara eremu tentsionatu izendatzeko eskaria, eta jarrera horrekin aurkeztu



direla Ogasun batzordeko bileretan ere, etxebizitzaren aldeko neurriak hartzeko borondatez. Orain egindako azken 4 Ogasun batzordeetan, Alkateak esan ziela martxoan iragarri zizkieten azterketa eta hausnarketak ezerezean gelditu zirela. Hobarien baliagarritasuna ebaluatzeko asmorik ere ez dela ikusi eta errekaratu proposamen bat ere egin zutela eta horiek kontuan hartzeko asmorik ere ez dela ikusi. Gai honetan hala ere, eskua luzatzen diotela Lazkaoko EAJri eta eskaria egiten diotela elkarrekin egoeraren diagnostikoa eta hobekuntza bideak esploratzeko ahalegin bat abia dezala. Horrek barne hartuko dituela ordenantzak ere.

Eta kiroldegiko tasei dagokionean, azken urteotan kiroldegia inguruan gertatzen den gauza guztietan bezala, bazkidetza, abonamendu eta sarreraren eguneratzea ere inprobisazioz eta plangintza seriorik gabe jarduten duela EAJk. EH bilduren ustez lau pauso eman beharko lirateke gutxienez horrelako eguneratze batera iristeko. Lau horietako bat eguneratze hori da, eta abiapuntuak izan beharko lukeela urtero urtero zer kostu izango duenaren kalkulua bat egitea, epe luzeko begiradarekin, HAPOaren testuinguruan Lazkaoko biztanleriaren bilakaera nolakoa aurreikusten den, zer behar aurreikusten diren... eta horien eragindako kostuaren dimentsionamenduren bat egin beharko litzateke. Eta puntu honetan gaizki hasi direla, ez delako horrelako ariketak egin.

Bigarren urrats batean kostuaren finantzaketa eredu zehaztu beharko litzateke, eta eredu horretan aztertu ordainketa nola banatzen den herritarren artean. Ogasun batzordeetan aitortu dietenez, banaketa hau nola egin beharko litzatekeenaren hausnarketa hau ez da egin.

Ondoren, kobrantza mailaren egokitzapen eskema bat ere egin beharko litzateke. Horren abiapuntua, helmugak eta tartean eman behar diren urratsak argi izanda.

Azkenik, egungo hobari sistema prezio berriei ondo erantzuten dien aztertu beharko litzateke, eta horien arabera, berrikusi beharko litzateke kirol eskaintza herritar guztiengana iristeko moldatu behar diren edo dauden bezala iraunarazi behar zaien hobariei.

Kiroldegiko sarreraren kostua %20 igotzea proposatzen duela EAJk, jakinik aurrerago agian igoera gehiago etorriko direla, eta kalkulurik egin gabe %20 igotzea proposatzen dutela. Baldintza horietan ezinezkoa zaiela EAJ-PNVren proposamena onartzea.

Alkateak erantzun dio lau bileretan EH Bilduk egindako proposamenak oso urriak izan direla. Bi proposamen bakarrik egin dituztela: hutsik dauden etxebizitzetako errekaratua jartzea, eta egungo hobaria, alokairuan etxebizitza bat edukitzeagatik dagoena, kentzea.

Kiroldegia eta etxebizitzaren kontua aipatu dutela, gainontzeko proposatutako aldaketetan ados daudela ulertzen dutela. Ados egoteak ez duela harritzen, zaborren kasuan adibidez. Beste herri askotan badirudiela plangintza



eza nagusitzen dela gai honen inguruan igoera oso haundiak proposatuz, eta Lazkaon soilik % 10 igotzea proposatzen dela.

Bestalde proposamenak oso urriak izan direla, eta bi proposamenetatik bat bileretako batean EH bilduk berak atzera bota zuena. Beraiek proposatu eta beraik bota zutela atzera. Beraz, proposamen bakarra egin zutela, egungo hobaria kentzearena.

Kiroldegian plangintza eza aipatzen dutela, plangintza ezaren adibide nabarmenena ezer ez egitea dela. Kalkuluak egin direla, beste gauza bat dela EH bilduk ulertu ez izana edota interesik ez edukitzea. Eta igoerak arrazoï sendoak dituela euren ustetan. Lazkaoko kiroldegian aplikatu diren tasak orain arte, oso baxuak izan direla. Gaur egun kiroldegiaren eskaintza asko hobetu da eta are eta gehiago hobetuko da kiroldegiko obra amaitzen denean 2025ean. Ulertzen dute zerbitzuen hobekuntza horrek tasen eguneraketa bat ekartzen duela, eta arduraz jokatzeko duten heinean, igoera hori guztiz arrazoitua dagoela.

Gaiak eztabaidatu ondoren, eta Ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 5 botorekin (EH BILDU), honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedientearen jasotzen den dokumentazioaren arabera ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar egun balioduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikotzat joko da berariazko beste akordiorik hartu gabe.

II.- UDAL ZERGA ETASAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN ARAUTEGIA.-

Udal zergak eta tasak ordaintzeko laguntzen arautegia aldatzea planteatzen da. Aldaketak honako hauek dira:

- Laguntza hauek aplikatzeko erabiltzen den hileroko soldata mailaren taulan, LGSrekin alderatuta, bi lerro gehiago gehitzea: bata 5 kideko familientzat eta bestea 6 kide edo gehiagoko familientzat.

Honako hau gehitzea ere proposatzen da: "Familia ugariei, kide bat gehiago gehituko zaie eta honela aurreko taula aplikatuko zaie."

- Honako hauek ezabatzea:



"5 kide edo 5 kidezik gorako familiak %100aren hobaria izango dute, baldin eta famili horretako diru sarrera urtean 40.700 euro baina gehiago ez bada."

"5 kide edo 5 kidezik gorako familiak %50aren hobari izango dute, baldin eta famili horretako diru sarrera urtean 51.700 euro baina gehiago ez bada."

"3 edo 4 kidezko familietan, 21 urtezik gora kide bakarra denean, familiak beste kide bat gehiago izango balu bezala kontatuko da."

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergen laguntzei dagokionean, famili ugari-
en hobarian gehieneko diru-sarreraren mugak honela igotzea:
 - o $\leq 42.900 \text{ €}$ %75eko hobaria
 - o $\leq 53.900 \text{ €}$ % 50eko hobaria

Hau honela, eta Ogasun Batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedienteetan jasotzen den dokumentazioaren araberrako udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko arautegiaren aldaketa, hasiera-
ko izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lan balioduneko denboral-
dian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onar-
pena behin betikoa bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



The image shows a handwritten signature in blue ink over a blue official stamp. The stamp is rectangular and contains the text "LAZKAO" and "UDALA" in capital letters. The signature is written in a cursive style.